


Lezoko zine agenda

MAIATZA

MAYO

2004




Gezala
AUDITORIUMA

800
zine ma



Lezoko Unibertsitateko
Udala

**BATTLE ROYALE**

Japoniako zinea aipatzen dugunean erritmo ez oso bizian kontatutako historia transzendentalak datozkigu burura, oro har. Beno, hartu ideia hori eta zure burutik kendu. Japoniarrek ere badituzte frustrazioak eta horiek kanporatu beharra. Hori nola egiten duten? Pelikula hau adibide bat izan daiteke.


“Battle Royale” erabateko erokeria da, hain gutxi ezagutzen dugun erokeria japoniarra.

2002, Japonia 114 min. Kinji Fukasaku.
Takeshi Kitano, Tatsuya Fujiwara, Aki Maeda, Taro Yamamoto, Masanobu Ando.

**SALTO AL VACIO**


Kasu askotan zuzendari askoren lehenengo pelikula azpimarragarrienetakoa izatera iristen da beren karreraren. Opera prima askok dute bertute hori, eta eskuartean dugun kasua horietako beste bat izan daiteke. Historia 80. hamarkadako Bilboko ibar ezkerrean kokatzen da. Krisi garaiak, droga salmenta, hirien degenerazioa... Bati baino gehiagori ezagun egingo zaio bertan islatzen den giroa!

1995, EH 85 min. Daniel Kalparsoro.
Najwa Nimri, Roberto Chalu, Alfredo Villa, Ion Gabella, Karra Elejalde.

**THE COTTON CLUB**

Joan den mendeko 20. hamarkadan kokatua, hiriko nagusiak gangsterrak dira. Eguneko ‘lanjardunaren’ amaieran klub apartetan biltzen dira. Horietan ezagunena: “The Cotton Club”. Jazz doinu ahaztezin bezain ezagunez osatutako soinu-banda du, gans-terren filmak egiten erreferente nagusia den, Coppolaren filme honek. Richard Gere-ren film ezagunenak “Pretty Woman” edo “American Gigolo” badira ere, bere karrera salbatzen duen bakarretakoa honako hau izan daiteke.


1984, EEBB 127 min. F.F. Coppola.
Richard Gere, Diane Lane, Gregory Hines, Bob Hoskins, Nicolas Cage.

**LUGARES COMUNES**

Bere burua ezkertiarizat duen filmeko protagonistak ez du iraultza politiko eta sozialik espero jada. Iraultza frantsesak proposatu zituen oinarritzko baloreak (askatasuna, berdintasuna eta adiskidetasuna) lortzea “baino” ez du eskatzen. Aristarainek konpromisozko zinema egin izan du beti eta azkeneko honetan ere ez da aldatu.

Luppi eta San Pietro hobezinak. Donostiako zilarrezko maskorra.


2002, Argentina, Esp. 110 min. Adolfo Aristarain.
Federico Luppi, Mercedes San Pietro, Arturo Puig, Carlos Santamaría.

**HEAT**

Pultsu gogorra Pacino eta De Niroren artekoa, nork irabaziko ote du? Zinemaren historian oso eszena gutxi daude lapurreta ondorengo tiroketa bezalakoa. Horregatik bakarrik mereziko luke filma ikusteak.


Horretaz gain, Hollywoodeko bi izar oso ezagun, baina baita oso onak ere!

1995, EEBB 172 min. Michael Mann.
Robert de Niro, Al Pacino, Val Kilmer, John Voight, tom Sizemore.

**EYES WIDE SHUT**

Kubrick maisuaren azken filma da honako hau. Amodio platonikoren, sexu ordainduaren, nekrofilaren edo haragikeriaren aurrean gizakiok ditugun jarreretan barna sartzen da maisua. Imajina eta musikaren erabileran zen Kubrick artista (gogoratu “2001, una odisea del espacio”) eta pelikula honetan ere, tresna horiek ditu oinarri.

1999, EEBB, EB 159 min. Stanley Kubrick.
Nicole Kidman, Tom Cruise, Madison Eginton, Sydney Pollack.

**GATTACA**

Etorkizuneko gizartean kokatuko historia honetan gaur egun guztion ahotan dagoen genetikaren gaian oinarritutako historia kontatzen da. Vincent ez da genetikoki ‘baliozkoa’, ADN perfektua ez duelako. Hala ere, bernk Gattaca espazioko agentzia egin nahi du lan eta ‘baliozkoa’ den beste pertsona baten identitatea hartuz horretan saiatuko da. Biogenetikaren aplikazioak ekar ditzaken ondorio sozialak zein izan daitezken susmatu daiteke. Ez galdu aukera.

1997, EEBB. 101 min. Andrew Niccol.
Uma Thurman, Ethan Hawke, Jude Law, Gore Vidal.

**EL BOLA**

Beste opera prima zirraragarria da A.Mañasen lehen pelikula hau. ‘El Bola’ 12 urteko haurra da. Bere familia egoerak lotsatu egiten du eta errealtate hori gordetzen saiatzen da. Hurrekiko tratu txarrak gai bezala lantzen duen film bat sentsiblekerian ez erortzea nahikoa meritu bada.

2000, Espainia 88 min. A.Mañas
Juan José Ballesta, Pablo Galán, Alberto Jiménez.

Osteguna / Larunbata **2,00€**

Igandea **1,00€**

IGANDEA • domingo


HAUR JOLASAK

MAIATZAK 9 15:30 Herri Eskola

11 urte arte: HERRI KIROLAK

12tik arte: GINKANA

HERRI ESKOLAKO GURASOAK antolatutako jarduera




GEZI URDINA

Haur behartsu baten historia da. Gabon gauean jostailurik jaso gabe geratzen da. Jostailuak bizidun bilakatuko dira eta beraien artean elkartu egingo dira haur honen atsekabea konpondu nahian. Jostailuek gau horretan abenturak eta sorpresak biziaraiziko dizkiote haur horri.

Italiar marrazki bizidun hauek Jani Rodariren ipuinean oinarrituta daude.

1996, It., Sui., Al., Lux. 93 min. Enzo d'Alò.
Marrazki bizidunak.



BALOIA

Sophia hamaika urte dituen haurra da. Bere lagun bakarra Minus izeneko zakurra da. Egun batean ijito zahar batekin egingo du topo. Honek bere bizia erabat aldaraziko duen larruzko baloi zahar bat oparitzen dio: bai baloiak botere magikoak ditu! Inguratuko ote zaizkio lagun berriak?

1990, Belg., Alem., Hol. 90 min. Danny Deprez.
Ernst Low, Michael Pas, Martje Ceulemans, Jonas De Ro.



BETIZU ZUZEN ZUZENEAN

ETB-k ezagutzera eman duen Betizu kluba oso arrakastatsua da haurren artean. Oraingoan 2003an Betizuekoek Bilbon egin zuten kontzertua ikusteko parada izango da. "Gora, gora", "Lau teila-tu", "Shin Chan" edo "Ama, ez dut ohea egin nahi" bezalako abestiak entzungo dira emanaldi honetan.

2003, EH 69 min. Hainbat.
Hainbat.

MAIATZA - MAYO

eguna/día	ordua/hora	pelikula
OSTEGUNA 6	22:00	BATTLE ROYALE
LARUNBATA 8	22:00	HEAT
IGANDEA 9	15:30	HAUR JOLASAK
OSTEGUNA 13	22:00	SALTO AL VACIO
LARUNBATA 15	22:00	EYES WIDE SHUT
IGANDEA 16	16:30	GEZI URDINA
OSTEGUNA 20	22:00	THE COTTON CLUB
LARUNBATA 22	22:00	GATTACA
IGANDEA 23	16:30	BALOIA
OSTEGUNA 27	22:00	LUGARES COMUNES
LARUNBATA 29	22:00	EL BOLA
IGANDEA 30	16:30	BETIZU ZUZEN ZUZENEAN

JACQUES TATIREN HILABETEA

eguna/día	ordua/hora	pelikula
ASTEARTEA 4	22:00	DÍA DE FIESTA
ASTEARTEA 11	22:00	LAS VACACIONES DE MONSIEUR HULOT
ASTEARTEA 18	22:00	MI TIO
ASTEARTEA 25	22:00	PLAY TIME

JACQUES
TATIren
HILABETEA

Maiatzean zehar Jacques Tatiren inguruko ziklo bat antolatu dugu, bere pertsonai eza-gunena izan zen Monsieur Hulot-en jaiotza-ren 50. urteurrena betetzen dela eta. Bizikleta, aterkia, pipa eta gabardina dira Jacques Tati-ren alter ego-a zen Hulot jaunaren ezaugarri definitzaileak. Garapen onomatopeiko konplexuetan oinarritutako “gag” luzeen erabil-tzaile aparta izan zen zuzendari frantziar hau. Historia oso kritikoa filmatuz, moder-nitatearen eta urbanismoaren garapen basatia salatu zituen. Gizarte gaiekin konprometitua izateaz gain, sormen artistikoaren bidez komedianta ikaragarria izatera iritsi zen Tati. Ziur aski ezezaguna bezain ikaragarria.

"Las vacaciones de Monsieur Hulot" filmaren kasuan esaterako, A.Bazinen, *"Cahiers du cinéma"* aldizkariaren sortzaileetako bat eta ondoren oso garrantzitsua bilakatu zen *"Nouvelle Vague"* mugimenduaren sustatzailearen hitzetan, Marx anaiei ondoren filme komikorik garrantzitsuena izateaz gain, soinu-dun zinemaren barnean egin den gertaera aipagarrienetarikotzat jo behar da.

Zuzendari honen bizitza ezagutu zutenak Hollywoodera joateari uko egin ziola esan izan dute. Ez zitzaion arrakastaren alde glamourosoa interesatu, ezta dirua lortze hutsa-gatik lortzea ere. Behin baino gehiagotan geratu zen sosik gabe, baina bere ideiak eta kritikak berak pentsatu bezala filmatu zituen inoren zentsurarik gabe. Gizarte garapena-ren eredu zehatz baten defendatzaile, era-tzen ari zen gizarte berriaren kritikatzaile finenetarikoa izan zen joan den mendeko bigarren mende erdian.


Oharra: Informazio interesgarria bezain formalki txukuna ondorengo web orrian aurki dezakezu: www.tativille.com.



DÍA DE FIESTA

Saint Sévère herrixkan festak hasiera doaz eta prestaketa lan guztiak abian dira. François postariak festetara iristen diren txosna horietako batean AEBetan postariak duten sistema ikusten du film batean. Hurrengo goizean amerikarren 'metodo partikularra' aplikatzen hasten da.


1949, Frantzia 🕒 70 min. 🏠 Jacques Tati.
👤 Guy Decomble, Jacques Tati, Paul Frankeur, Santa Relli



VACACIONES DE MONSIEUR HULOT

Hulot jauna Frantziako hegoaldeko herrixka batetara doa oporrak pasatzera. Bere kotxe kaxkarrarekin, bere janzkera bereziarekin, hotelera iristeararekin batera bertako lasaitasuna desagertzen da. Haurrentzako opor ahaztezinak izango dira Huloten "ekintza gogaingarriak" ikusita.


1953, Frantzia 🕒 114 min. 🏠 Jacques Tati.
👤 Kevin Spacey, Annette Bening, Thora Birch, Mena Suvari, Wes Bentley.



MI TIO

1958an atzerriko hizkuntzan filmatutako filme hoberenaren Oscarra eman zioten Hollywood behin ere zapaldu ez zuen Tatiri. 'Mi tio' hau izango da hiritar bizimodu modernoaren aurka egiten duen lehen kritika zuzena. Komiki itxura paregabea du filmeak, benetan zoragarria.

1958, Frantzia, Italia 🕒 110 min. 🏠 Jacques Tati.
👤 Jacques Tati, Jean-Pierre Zola, Adrienne Servantie, Dominique Marie.



PLAY TIME

*Modernismoaren garapenak eragindako zoramenari pelikula honetan egi-
ten dio kritika gogorrena Tati/Hulot-ek. Aitzakia turista amerikar batzuk
Europara egindako bidaia bat izango da. Ezagutuko dituzten Paris, Erro-
ma edo Hamburgo modernitatearen eraginez hiri berdinak direla ikusiko
dute. Pelikulak hori salatuko du modernitateak sortutako homogeneitatea:
aireportu, autopistak, autoak, farolak... leku guztiatan berdinak dira.*

1967, Frantzia, Italia 🕒 155 min. 🏠 Jacques Tati.
👤 Jacques Tati, Barbara Dennek, Rita Maiden, France Rumilly, France Delahalle.

Iker Goenaga

maitzak 14 22:00

"Txikitxuterik", bere azken disko horretan, berezko nortasuna duten mundu hurbilak, kuttunak eta mundu unibertsalak, iraunkorrak, nahasten ditu Iker Goenagak, kantuarik onak, sinpleak, eskurakoiak eta sendoak. Iker Goenagaren musikari sinesgarritasun zintzoa dario. Oinarririk funtsezkoena tradizioan bilatu duelarik, aldi oro errebisatzen du berau eta errespetu handiarekin ikuspegi garaikide bat ematen saiatzen da. Bere kantu berriok, ondorioz, musika herrikioaren izaeraz markaturik datoz: errazak baitira transmititzen, kantatzten, sentitzen. "Txikitxuterik" lane honek, halaber, taldearen sonoritate berriztatua aurkezten du; zabalagoa, landuagoa: gitarraren eta trikiaren arteko jolas melodiko erakaragarriak, gorputza kulunkatzen duen erritmoak... Ahotis iradokitzailea bezain beroa, kantu onak. batez ere bizirik irauteko baltsamoak dira.



“Eskubiko pareta”

maiatzak 21 22:00 <<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<

Mikelazulo antzerki taldeak aurkeztu du “Eskubiko pareta”k. Funtsean antzerkia, poesia eta ilustrazioaren arteko harremanean sakondu nahi duen ikuskizuna.

Egunero gure buruari egiten dizkiogun galderak daude oinarrian, neurri batean absurdoak ere izatera iritsi daituzkeen galderak, baina ekidiezinak suertatzen direnak sarri. “Gehiegi” pentsatzen dugun bakoitzean gure buruari egiten dizkiogun galdera horietara umoretikoa naiz irekitzen dira zeharbideak ikuskizunean zehar.



Miren Aranburu Ensemble

maiatzak 28 22:00 <<<<<<<<<<<<<<<<<<<<=====
1996an sortutako talde honek **Miren Aranbururen** ahotsa eta **Jean Louis Hargousen** doinuak ditu ardatz. Hauek gain, piano, kontrabaxu eta bateriak osatzen dute taldea. Orain arte apenas ikertutako sorkuntza bide honek jazzaren lengoaia moderno, inprobisazio musikala eta euskaraz batzen ditu.

Miren Aranburu ez da aurpegi berria euskal kantagintza-
ren panoraman. Bere lehen diskoa 1977an argitaratu zuen,
orduko euskal kanta berriaren tankerako piezak abestuz.
80. hamarkadan jazz mundura gerturatu zen, Jean Louis
Hargous musikagilea ezagutu ondoren. Hargous saxo-
jolea da eta sei disko kaleratu ditu. Musikagile gisa, jazzet-
ik musika elektroakustikaraino doan ibilbide oparoa
jorratu du.

Bion arteko elkarlanaren lehen fruitua Etorkizunaren memoria izeneko diskoa izan zen, 1996an argitaratua. 2002an **ERRABAL** euskal jazz zigilua estreinatu dute, "Gorri isila" diskoarekin. Bertan, Miren Aranbururen ahots samurrak gai propioak eta euskal kanta ezagunen bertsiio modernok aurkezten ditu. Zuzeneko emanaldietan, boskote, zein laukote edo hirukote formatuetaz balia daiteke.

